

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 515/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onestea Lexuri Ugarte Aretxaga andrea Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendari izendatzea**

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Lexuri Ugarte Aretxaga Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendari izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko abuztuaren 6tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**